

ESKOLA HIZTUN BILA

2014/15



LANBIDE HEZIKETA ESPERIENTZIAK: zonaldeko tailerrak

Ideien Laborategietarako aztergaiak, Lanbide Heziketa**Azalpena:**

- Eskola Hiztun Bila jardunaldiaren bigarren egunean talde-lana egingo dugu. Iaz bezala, Lanbide Heziketako ikastetxeetako HN arduradun teknikoekin (HNAT) berariazko lan taldeak antolatuko ditugu
- Talde-lanaren helburua hau izango da: HNPa garatzeko orduan ditugun erronka nagusiei aurre egiteko gakoak identifikatzea eta ideia berriak sortzea
- Erronka nagusi horiek identifikatzeko **inkesta** bat egin genuen, eta inkestatik **8 aztergai atera** genituen (beherago dituzue). Antolatzaileoi (Barandiaran Lan Taldea) iruditzen zaigu aztergai horiek guztiak oso esanguratsuak direla Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren hezkuntzako ikastetxeetarako; baina Lanbide Heziketako HNATentzako agian ez direla horren errebante (horietako batzuk behintzat)
- Horregatik Lanbide Heziketako HNATon lan-taldeentzako gaiak aukeratzeko bigarren saiakera egitea pentsatu dugu, eta zuen lankidetzak eskatzen dugu

Eskaera:

- Bete jarraian datorren taula. Baina ... bi urratsetan bete
 - Lehengoan (urtarrilak 20a arte) bete lehen zutabea (horia); hori da apuntatu zuk zeuk proposatuko zenituzkeen gaiak
 - Bigarreanean (urtarrilak 25a arte) bigarren eta hirugarren zutabeak bete; hori da...
 - Irakurri denon artean proposatu ditugun gaiak
 - Horietako bi hobetsi, zuk zeuk parte hartzeko egiten dituzun lehenengo eta bigarren aukerak. Horretarako, idatzi zure izen-abizenak eta ikastetxea dagozkien gelaxketan)

Aztergaia	Nire lehenengo aukera (gelaxkaren barnean zure izen-abizenak eta ikastetxea jarri)	Nire bigarren aukera (gelaxkaren barnean zure izen-abizenak eta ikastetxea jarri)
A. Irakasleok hizkuntza- erabiltzaile, erabileraren eredu eta eragile	...	
B. Ikasleen motibazio eta jarrera: eskola antolamenduari dagokionez D ereduko ikasleei praktiken garapena euskaraz bermatzeko aukera ahalbideratu. A ereduko ikasleen kasuan ikasleen motibazioa eta jarrera nola landu praktikak euskaraz egin ditzaten.	Nereba Peña NAZARET	
C. LHko hizkuntza eredu bilakaera eta etorkizuna, zehazki B eredu.		Kepa Altube Eraña (Laneki-jakinbai)
D. LHko ikasleek lantokiko prestakuntza euskaraz egin dezaten erabiltzen ditugun estrategia eta tresnak.	Kepa Altube Eraña (Laneki-jakinbai) Ander Loyarte (Urnietako Salesiarrak)	Nereba Peña NAZARET
E. Talde mistoetan jarduteko hizkuntza irizpideak		Ander Loyarte (Urnietako Salesiarrak)

F Ikasleen arteko euskararen erabilera nola sustatu? Pasiloetan, atsedendian, ...		
G Ikasleen artean euskaraz hitz egiteko jarduerak		
H Materialgintza. Bide / iturri berriak. Administrazioari eskaerak nola?		
I A eta D ereduak dituzten ikastetxetan, nola euskararen erabilera bultzatu bilera eta espazio amankomunetan: Eskola Kontseiluak, Klaustroak, departamendu bilerak, ikastalde mistoak, atsedenetan, enpresa prestakuntzan, heziketa ez arautuan,...		

Erreferentzia, LMHko eta DBHko ideien-laborategietan landuko diren gaiak:

- **IRAKASLEAK, HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA:** Zer egin eta nola jokatu prestakuntza erabaki pertsonal izatetik erabaki instituzionala izatera igarotzeko, ikastetxean “Hizkuntza Kalitatea Ziurtatzeko Prestakuntza Plana” izatera ailegatzeko, alegia.
- **IRAKASLEAK, HIZKUNTZA ERABILERA:** Irakasleok erabiltzaile (ikasleekiko harremanetan eta irakasleon artean) eta erabileraren eragile. Honetan aurreratzeko zer egin eta nola jokatu?
- **IRAKASLEAK, PARTE HARTZEA ETA INPLIKAZIOA:** Zer eta nola?
- **GURASOAK:** Nola eragin guraso euskaldunengan hizkuntza-jokaera konsistentea izan dezaten, hori da ikasleentzako erabilera normalizatuaren eredu izan daitezten. Nola eragin guraso erdaldunengan seme-alaben erabileran aurrera egiteko jarrera lagungarria har dezaten?
- **IKASLEAK, GAITASUNA:** Ahozko Komunikazio Gaitasuna garatzeko lanak eskolan. Egoera eta genero formalei zein informalei dagokienez
- **IKASLEAK, GAITASUNA:** Zer egin eta nola jokatu Ikasleek euskarazko Hizkuntza Komunikazio Gaitasun osoa gara dezaten, duten gaitasunaren kontzientzia ere, eta beraien ikas prozesuaren jabe bihurtu daitezten?
- **IKASLEAK, ERABILERA:** Talde lanean edo lan kooperatiboan dihardutenean ikasleen arteko elkarreragina euskaraz eman dadin zein estrategia baliatu? Nola jokatu? Zer egin eta nola jokatu Ikaslek gelan hitza izan dezaten? Nola eskaini eta dinamizatu erabilera-egoera asko, askotarikoak eta gero eta konplexuagoak? Eta gelaz kanpo?
- **IKASLEAK, MOTIBAZIOA ETA JARRERAK:** Zer egin eta nola? Euskara erabiltzea errazten ez duten egoeretan zein dira erabiltzaile aktibo izateko behar diren usteak (kontzientzia) eta gizarte trebetasunak (asertibitatea, enpatia, talde-presioari aurre egiteko ahalmena...) zer egin eta nola jokatu

I

(LH)

IKASLEEN MOTIBAZIOA ETA JARRERA: Nola animatu praktikak euskaraz egin ditzaten eta erabiltzaile aktiboak izan daitezen? Atsedean tartean, berain arteko elkarrizketatan, irteeratan,... euskara erabiltzera motibatzeneko estrategiak.

AZTERGAIA ZEHAZTEN

Ikasleak motibatu...

- euskal ereduak aukeratzeko,
- lantokiko prestakuntza euskaraz egiteko,
- ikaskideekin euskaraz egiteko
- irakasleekin harremanetan euskaraz aritzeko.

LAN PROZEDURA

Egoeraren azterketa (1. saioan)

- Ikaslearen motibatzeneko faktore eragileak edo baldintzak
- ikaslearen motibatzeneko lan gure ikastetxean, Aukerak Eragozpenak, Indarguneak eta ahuleziak (AMIA)

Aurrera begira: Aurrerapausoak emateko zer? (2. saioan)

- AMIAtik eratorritako estrategiak
- 6 kapelak

J**(LH)**

Lanbide Heziketako hizkuntza ereduaren bilakaera eta etorkizuna. Talde mistoetan jarduteko hizkuntza irizpidea. B ereduaren ezartzeko baldintzak eta epeak.

AZTERGAIA ZEHAZTEN

Hezkuntza Sailak Lanbide Heziketako ikastetxeetan B ereduaren erabilera eskainiko dela iragarri du. Oraindik ez dakigu zehatz-mehatz nola gauzatuko diren B eredu horiek (zer emango den euskaraz eta zer gaztelaniaz, erabaki hori ikastetxeen esku edo sailaren esku egongo ote den...). B ereduaren aritzea euskaraz –neurri batean– ikasten jarraitzeko aukera izan daiteke zenbait ikaslerentzako; euskaraz ikasten duten ikasleentzako DBHtik Lanbide Heziketara igarotzean antzematen den galera, neurri batean behintzat, berdintzeko bidea.

LAN PROZEDURA

Egoeraren azterketa: (1. saioan): B ereduaren gure ikastetxean ezarri?

Pentsatzen jarri: zuen ikastetxeetan, euskarazko irakaskuntzaren aurrerabideari begira, ...

- B ereduaren ezarriak onurarik edo abantailarik ekarriko luke? Arriskurik izango luke?
- B ereduaren ezartzeko nolako aukerak eta oztipoak aurreikusten dituzue?
- AMIA egin: aukerak, eragozpenak, indarguneak, ahuleziak...

Aurrera begira:

- B ereduaren ezarpeneko baldintza egokiak identifikatu
 - Zer irakatsi euskaraz, zer erdaraz? Zeren arabera erabaki hori?
- Baldintza egokiak ezartzeko bidea (estrategiak eta neurriak)
 - Ikasgai horiek euskaraz eman daitezkeen zer landu beharko genuke, eta nola?
 - Erabakitakoa nola islatu ikastetxeko dokumentuetan?

K

(LH)

A eta D EREDUAK DITUZTEN IKASTETXETAN, nola bultzatu euskararen erabilera eremu instituzionalean: Eskola Kontseiluak, klaustroak, mintegi bilerak, lantokiko prestakuntzan, heziketa ez arautuan,...

AZTERGAIA ZEHAZTEN

- Dokumentazioan
 - Administrazio- eta ekonomia- dokumentazioan
 - Dokumentazio pedagogikoan
 - Funtzionamendua eta araudia
- Hizkuntza Paisaian
- Barne komunikazioan
 - Gobernu-guneetan. Funtzionatzeko eta parte-hartze
 - Ikasleekiko harreman formaletan
 - Familielikiko harremanetan
- Kanpo komunikazioan
 - Hezkuntza administrazioarekin. Laguntza Zerbitzuekin
 - Beste administrazioekin. Bestelako zerbitzuekin
 - Beste ikastetxeekin. Ikastetxe sareekin
 - Enpresekin
 - Hornitzaileekin
 - Herri edo eskualde mailako eragileekin
 - ...

LAN PROZEDURA

Egoeraren azterketa: (1. saioan)

- Erabileran eragiten duten faktoreen azterketa
- AMIA: aukerak, eragozpenak, indarguneak, ahuleziak...

Aurrera begira: Erabileran aurrera egiteko bidea aurreikusten

- AMIAtik eratorritako estrategiak
- 6 kapelak

L

(LH)

Lanbide Heziketako ikasleek lantokiko prestakuntza euskaraz egin dezaten erabiltzen ditugun estrategia eta tresnak.

LAN PROZEDURA

- Zeuen ikastetxeen egoeraren azterketa:
 - AMIA

Aurrera begira: Aurrerapausoak emateko zer? (2. saioan)

- Lanekik deskribatutako zein fasetan gaude?



- Fase horren barnean lortutakoari eusteko eta aurrera egiteko zer egin?
 - Ikastetxean: arduradunak eta egitura, ikaslea eta tutorea; prozedura eta dokumentazioa
 - Enpresekiko harremanak: tokia aurkitzea eta hitzarmenak egitea; praktikaldian bertan (dokumentazioa, hizkuntza paisaia, instruktorea, une esanguratsuak...)
 - Lankidetzaren harremanak: ikastetxeen artean, udalekin edo mankomunitateekin, Berritzegunean, TKnikan, Lanekin, HETEI edo IKASLANen, beste nonbait...

Hurrengo urratsera ailegatzeko, zer egin?

Ikastetxearen egoera baliatu dugun aztertzeko eskema:

Ikastetxean

- Arduradunak, egitura
 - HN arduraduna eta batzordea
 - Lantokiko Prestakuntzaren arduraduna
 - Kalitate-arduraduna
 - Zuzendaritza-taldekoak
- Ikaslea eta Tutorea
 - Motibatzea sentsibilizatzea
 - Prestatzea, trebatzea
- Prozedura, dokumentazioa (euskarazko lantokiko prestakuntzaren perspektiba eta euskara bera txertatzea)
- ...

Enpresekiko harremanak

- 'Lokalizazioa' (izendatuta bada, izendatuta ez dagoenean: hizkuntza-irizpideak) eta hitzarmena (Hizkuntza-irizpideak)
-
-

Enpresekiko harremanak

- ‘Lokalizazioa’ (izendatuta bada, izendatuta ez dagoenean: hizkuntza-irizpideak) eta hitzarmena (Hizkuntza-irizpideak)
- Praktikaldian eragin (eta, zeharka, enpresan):
 - Dokumentazioan eta Hizkuntza Paisaian
 - Instruktoarengan
 - Une esanguratsuenetan:
 - Lehen harremanak
 - Harrera
 - ...
 - ...
- ...

Lankidetzaren harremanak

- Ikastetxeen artean
- Udalean, mankomunitateetan
- Berritzegunean
- Beste nonbait
- ...

I (LH)	Lanbide Heziketako ikasleek lantokiko prestakuntza euskaraz egin dezaten erabiltzen ditugun estrategia eta tresnak.	
Esperientziaren Izena	IKASLEAK ENPRESETARA JOATEN DIRENERAKO SENTSIBILIZAZIO-IKASTAROA.	
Helburuak	Orokorra: Ikasleak, enpresa-munduan, euskal-eragile aktiboak izatea.	Zehatzak: - Lan mundura jauzia egingo duten ikasleak praktika-aldian zein lanpostuan euskara erabiltzeko dituzten aukerez jabetzea eta horretarako baliabideak ezagutzea.
Testuingurua:	<p>Tolosaldea GLHB Institutua Lanbide Heziketako zentru publikoa da.</p> <p>98. urtean Hezkuntza Sailak EAEko Mapa Eskolarra birrantolatu zuen eta ikastetxea Lanbide Heziketako ikastetxe integralen sarearen barruan dago urte horrez geroztik; azken hauen betebeharra Lanbide Heziketaren Euskal Planaren garapena gauzatzea da.</p> <p>Gaur egun, ikastetxeak hezkuntza arautuan heziketa zikloak, erdi eta goi mailakoak, eskaintzen ditu. Horretaz gain etengabeko formazioan ere dihardu, langileei arratsaldeetan hainbat ikastaro emanez. Eskaintza osatzeko langabetuentzako ikastaroak ere eskaintzen ditu.</p> <p>Ikastetxeak bere eskaintza akademiko osoa D ereduan ematen du. Goi mailako 6 ziklo ditu, eta erdi mailako 5. 2014-15 ikasturtean 403 ikasle matrikulatu dira hezkuntza arautuan eta hau guztia aurrera eramateko 62 irakasle eta 5 langile ez-irakasle daude.</p> <p>Ikasleak Tolosa eta Tolosaldekoak dira gehienbat, nahiz eta Goierri, Leitza eta Donostialdetik ere badiren. Ikasle hauek orain arteko ibilbide akademikoa euskara hutsean egin dute. Gehienak ama-hizkuntza euskara dute eta gainera euskaraz bizi dira.</p> <p>Irakasle guztien euskara maila altua da; guztiek dute 2. hizkuntza- eskakizuna eta ikastetxeko ikas-irakatsi prozesuan erabiltzen den hizkuntza euskara da. Klaseak emateko materiala ere euskaraz dago, salbuespenak salbu. Honek esfortzu handia eskatzen die irakasleei, askotan hutsetik abiatu behar izaten baitute klaseetan erabiltzeko beharrezkoa duten materiala sortzeko eta beste batzuetan, aldiz, itzulpenak egitera behartuta daude.</p> <p>Langile ez-irakasleak 5 dira eta hauek ere euskara-maila altua dute.</p> <p>Ondorioz, euskara da ikastetxean erabiltzen den hizkuntza nagusia, gela barruan nahiz kanpoan, maila formalean eta informalean. Hezkuntza-komunitateko kideen arteko komunikazioa euskaraz gauzatzen da: ahozko eta idatzizko harremanak, dokumentazioa, posta, bilerak, klaustroak, artikulatuak... Ikastetxeko misioan ere garbi ikusten da zer-nolako garrantzia ematen zaion ikastetxearen euskaldun izaerari.</p> <p>Ahalegin honen isla dugu euskararen inguruan azken urtean lortu dugun Bikain urrezko ziurtagiria. Ikasleei dagokienez, 2. mailakoak zikloko titulazioa lortzeko Lantokiko Prestakuntza izeneko modulua gainditu behar dute. 385 orduko modulua da eta martxotik ekainera bitartean gauzatzen dute inguruko enpresetan, ikasgelatik lan mundura jauzi egin eta ikastetxean ikasi dutena enpresa batean praktikan jarritz.</p> <p>Hemen datza, ordea, gakoak: ikasle hauen ibilbide akademikoa guztiz euskaraz gauzatu arren, kasu gehienetan zikloa amaitzeko modulua ez da euskaraz burutzen. Modulua amaitu duten ikasleen artean egindako inkestek adierazten digute euskararen erabilpena oso kaskarra dela.</p> <p>Kontraesan honen arrazoiak aztertzerakoan bi arazo topatu ditugu.</p> <p>Batetik, enpresen egoera aipatu behar da. Tolosaldea euskalduna bada ere, enpresa mundua oraindik euskalduntze prozesuan dago eta gaztelera da nagusi enpresako arlo gehienetan.</p> <p>Bestetik, ikasleek oso barneratuta daukate enpresan gaztelera behar duela izan komunikatzeko tresna, nahiz eta langile gehienak euskaldunak izan. Aurreiritzi honek baldintzatzen du beraien hizkuntza jarrera lantokian.</p> <p>Euskararen normalizazio prozesuan beste urrats bat eman nahian, eta enpresa munduan eragiteko asmoz, zerbait egiteko beharra ikusten genuen, eta beste neurri batzuen artean sentzibilizazio edo motibazio saio batzuk prestatzea erabaki genuen. Izan ere, gure ikasleek aurreiritziak apurtu eta euskal eragile izatera heltzeko aurrerapausoak ematea ezinbestekoa</p>	

	<p>iruditzen zitzaigun. Hain errotuta dauzkagun inertziekin hautsi beharra dago. Euskararen minorizazioa barneratuta dugu eta konturatu gabe gaztelaniara jotzen dugu, minorizazio horretan sakonduz. Jarrera positiboa eta aktiboa bultzatu behar dugu. aurreiritziak alde batera utzita ahal den guztietan euskaraz jardunez.</p> <p>Orain dela 3 urte hasi ginen saio hauek antolatzen EMUN kooperatibaren eskutik.</p> <p>Ekintza hau ULIBARRI planaren barruan txertatuta dago</p>
DESKRIBAPENA :	<p>SAIOEN DINAMIKA:</p> <p>Saio hauetan 2. mailako ikasleek parte hartzen dute, erdi eta goi-mailakoek. Otsailaren bukaeran antolatzen ditugu, martxoan ikasleak enpresetara joaten direlako Lantokiko Prestakuntza modulua egitera. Guztira, bi saio egiten dira, bat erdi mailakoentzat eta bestea goi mailakoentzat eta saio bakoitzak ordu t´erdi irauten du. Tailer modura antolatzen dira, saio dinamikoak dira eta ikasleen parte hartzea bultzatzen da. EMUN–eko teknikariak dinamizatzen ditu saioak eta ikastetxeko irakasleen laguntza du.</p> <p>LANDUTAKO GAIAK.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntzen eta, beren beregi, euskararen nolakotasuna. - Hizkuntza, identitate ikur. - Hizkuntza portaerak. - Hizkuntza ukipena. - Elkarriketa elebiduna. - Euskara planak: zergatik eta zertarako. - Baliabideak:- Buruntzaldeako udalak. <ul style="list-style-type: none"> -Tolosako udalak -Bestelakoak - Euskararen zigiluak:-Bai euskarari <ul style="list-style-type: none"> -Bikain
EMAITZAK:	<p>Ondo atera zen iazko ikasturtean eta aurten ere errepikatzea pentsatzen dugu. Ikasleek enpresa mundura joaten direnean , konplexuak alde batera utzi eta, enpresa batzuetan behintzat, euskaraz jardutea posible dela ikusten dute. Ikasleei ez ezik irakasle eta LPko arduradunei ere saioetara joateko gonbitea luzatuko zaie</p>
Emaitzen azalpena	<p>Oso ona da. Ikasleen parte hartzea handia da, interesa azaltzen dute eta eztabaida aberasgarria sortzen da.</p> <p>Aurrera begira, interesgarria izango litzateke saioa egin aurretik ikasleekin gaiaren inguruko lanketa egitea; horrela saioa hasten denean ikasleek kokatuta daude, badakite zertaz arituko diren eta etekin handiagoa ateratzeko aukera egongo litzateke, eztabaidan sakonduz.</p> <p>Beste proposamena litzateke talde txikiagotan banatzea ; horrela parte hartzea areagotuko litzateke eta ekarpenak ugartu.</p>

